



## Hitzarmenaren blokeoaren aurrean, mobilizazioa beharrezkoa da

Urriaren 22an Arabako metalgintzako hitzarmenaren negoziazio-bileran burutu zen eta bertan parte hartu zuten SEA Arabako Enpresarien Elkarteak eta LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek.

Badira 20 hilabete biltzen hasi ginenetik eta gaur egungo egoera ez da aldatu ordutik: **EZ DAGO INOLAKO ADOSTASUN PUNTURIK PATRONALAREKIN.**

SEAk negoziazio kolektiboaren erreforma aprobetxatu nahi du erabateko aldebaketasuna ematen baitie enpresariei, eta gainera ez du hitzarmenaren hobekuntzaz hitz egin nahi.

Enpresarien ordezkariak argi eta garbi utzi ziguten haien iritziz "negoziazio kolektiboa ez dago orain dela 20 urteko parametroetan". Are gehiago, uste dute orain eredu bera kolokan dagoela, negoziazio kolektiboak ez omen du balioko lorpen sozialak lortzeko.

Jarrera horrek blokeo egoerara eraman gaitu eta horren ondorioz, LABen ustez negoziazio mahaiaren papera agortuta dago: bileratik bilerara ez dago inolako aurrerapenik eta bertan ez dago aukerarik ezer egiteko.

Hitzetatik ekintzetera pasatzeko unea da, egoera astintzeko eta bide bakarra gelditzen zaigu beraz: **MOBILIZAZIOA.**

Mobilizatu behar gara Herrialdeko hitzarmen duin bat lortzeko, erreformaren erasoetatik babesteko eta azken finean, **ARABAKO HITZARMENA BLINDATZEKO.**

Bileran bertan hausnarketa hau helarazi genien beste sindikatuei, mobilizazio dinamika amankomun bat osatzeari begira. Dei zuzena egiten diegu beraz adostasunetara ailegatu eta herrialdeko hitzarmenaren alde mobilizatzeko.

Hauk izan beharko ziren mobilizazio dinamikaren oinarriak:

- Herrialdeko Hitzarmenak metaleko langile guztientzako minimoak jaso behar ditu, enpresa hitzarmenen lan baldintzak eta eskubideak hortik gora egon behar dira.
- Herrialdeko hitzarmenak lehentasuna izan behar du Estatuko hitzarmen edota akordioen gainetik.
- Hitzarmenaren ultraktibitatea defendatu behar dugu, indarraldia amaitzean lan baldintza eta eskubide guztiak ez galtzeko.
- Ez da derrigorrezko arbitrajea inposatuko inaplikazio eta deskuelgeetan.

LABen ustez, behar-beharrezkoa da minimo hauen inguruan kalera ateratzea. Soilik konfrontaziotik mugiaraziko dugu patronala, soilik mobilizaziotik lortuko dugu herrialdeko hitzarmen duin eta blindatu bat.

Beraz, animatu nahi ditugu metalgintzako langile guztiak hitzarmenaren aldeko mobilizazioetan parte hartzera.

**INPOSAKETEN AURREAN, LANGILEOK TINKO**



## Ante el bloqueo del convenio provincial, es necesaria la movilización

El 22 de octubre se reunió la mesa negociadora del Convenio Provincial del Metal y ella tomaron parte el SEA y los sindicatos LAB, ELA, CCOO y UGT. Han pasado ya 20 meses desde que comenzamos a reunirnos y la situación es la misma que al principio: NO HAY NI UN SOLO PUNTO DE ACUERDO CON LA PATRONAL.

El SEA quiere aprovechar al máximo las posibilidades que le da la reforma laboral, ya que le otorga una unilateralidad absoluta, y además no quiere hablar de ningún avance en los contenidos del convenio.

La representación de los empresarios alaveses manifestó claramente que "la negociación colectiva no está en los parámetros de hace 20 años". Es más, para ellos lo que ahora se cuestiona es el modelo mismo, ya que "no se pueden permitir más conquistas sociales".

Esta actitud ha llevado a una situación de bloqueo y como consecuencia, la mesa de negociación está agotada: de una reunión a otra no hay ningún tipo de avance y no se prevé que en esta situación vaya a servir para algo.

En opinión de LAB, es el momento de pasar de las palabras a los hechos, de agitar el panorama y para eso sólo nos queda una vía: LA MOVILIZACIÓN.

Nos tenemos que movilizar para conseguir un convenio provincial digno, para protegernos de la reforma y, al fin y al cabo, para BLINDAR EL CONVENIO PROVINCIAL.

Esta reflexión se la trasladamos al resto de sindicatos en la misma reunión, de cara a configurar una dinámica de movilización conjunta. Por tanto, reafirmamos el llamamiento que les hicimos para llegar a acuerdos y movilizarnos en favor del convenio provincial.

Estas deberían ser las bases para una dinámica conjunta de movilizaciones:

- El Convenio Provincial tiene que recoger las condiciones laborales mínimas para todos y todas las trabajadoras del metal en Araba y los convenios de empresa tienen que estar por encima de él.
- El Convenio Provincial tendrá prioridad aplicativa sobre convenios o acuerdos estatales.
- Tenemos que defender la ultractividad del convenio, para que al acabar su vigencia no se pierdan todas las condiciones laborales y los derechos.
- No se impondrá el arbitraje obligatorio en inaplicaciones y descuelgues.

Desde LAB creemos que es imprescindible salir a la calle en defensa de estos mínimos. Sólo desde la confrontación haremos mover a la patronal, sólo desde la movilización conseguiremos un convenio provincial digno y blindado.

Por eso, animamos a todas y todos los trabajadores del metal a que participen en estas movilizaciones.